



JARDUEREN EGITARAUA 2026

AURKIBIDEA

- 0 SARRERA [02]
- 1 IKERLANAK ETA FUNTSEN ANTOLAKETA [06]
- 2 ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK [07]
- 3 BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK [08]
- 4 HERMES, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA [09]
- 5 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA [10]
- 6 EUSKARA [21]
- 7 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA [24]
- 8 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA [27]
- 9 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA [42]
- 10 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK [43]
- 11 KOMUNIKAZIOA/INFORMATIKA [44]
- 12 JARDUEREN HARTZAILEAK [45]



SARRERA

Sabino Arana Fundazioa irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundea da. Fundazioa 1988ko urriaren 11n sortu zenez geroztik, beraren zereginaren muina euskal historiaren ezagutza izan da: hura jagotea eta ezagutaraztea, betiere historia horri oraingo irakurketa egin dakion bilatuz, eta horrekin guztiarekin batera, ekarpen intelektuala egitea, Euskadik aurrera egiten segi dezan ikuspegi abertzale, demokratiko eta aurrerazale batetik.

Horretarako, lau tresna nagusi baliatu ohi ditugu: Gogoeta eta eztabaida mintzagunea, Agiritegi historikoa, Abertzaletasunaren museoa eta Hermes pentsamendu eta historia aldizkaria.

Sorrerako helburuetako bat Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eratzea izan zen eta horretan egin zituen ahaleginak eta bi. Jakina denez, agiritegi historikoek herrialde jakin baten historia biltzen dituzten funtsak gorde, kudeatu, zabaldu eta herritarren eskueran jartzen dituzte.

Handik hona, agiri-funtsek eta norbanakoen dohaintza ugariak dokumentazio-biltegia baino agiritegi askozaz esanguratsua eratu da SAFen: euskal abertzaletasunaren memoria historiko bizia, gorputz eta arima.

Gaur egun, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak dokumentazio historiko esanguratsua dauka hainbat funtsetan banatuta: Agiritegia, Liburutegia eta Hemeroteka. Liburutegiak eta Hemerotekak Historia Garaikideari, Politikoari, Antropologiari, Zuzenbideari eta Gizarte Zientziei buruzko liburuak gordetzen dituzte.

Azpimarratu beharra dago Fundazioan jasotzen diren dohaintza guztiak, bai Agiritegian, bai Museoan, altruistak direla, hau da, ez dago kontraprestazio ekonomikorik. Fundazioa lanean hasi zenetik, 3.900 dohaintza inguru jaso dira. Sabino Arana Fundazioa da abertzaletasunaren inguruko agiritegi eta museo historikoa sortu, kudeatu eta zaintzen duen fundazio bakarra. Bi erakundeok gizartearen zerbitzuko jarduteko eta gure ondare historiko eta kulturala zabaltzeko asmoz sortu ziren. Azken batean, gure memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten dugu, beste ezein fundaziok egiten ez duen moduan.

Agiritegia eta museoa aintzat harturik, ia 10.000 kontsultari erantzun diegu eta ia mila ikertzaile etorri dira gure kontsulta-aretoa.

Bestetik, Museoak 210 erakusketa propio –iraunkorrek nahiz aldi baterakoak– baino gehiago antolatu ditu.

Museoko gauzakiak eta agiriak ehun erakusketetan baino gehiagotan egon dira ikusgai Euskadin, estatuan eta nazioartean: Madril, Londres... Argazki-funtsak ere sarritan erabili dira Euskadiko, estatuko eta nazioarteko hedabideetan nahiz telebista ekoiztetxeetan.

Gogoeta eta eztabaida mintzaguneari dagokionez, azpimarratu behar da 37 urteko ibilbidean 460 hizlarik jardun dutela gogoeta eta eztabaida mintzagunean eta 10.500 parte-hartzaile inguru izan direla gaurdaino antolatutako 270 mintegi eta 90 mahai-inguruetan.

Gainera, denbora honetan guztian, gure fundazioak, erakunde editore gisa, 100 argitalpen baino gehiago argitaratu ditu, *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkariak (79 zenbaki) gain.

Atal honetan, aipatzekoa da kaleratzen hasi zenetik, 2001eko urtarrilean, 1.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dutela *Hermesen*, politika, pentsamendu, iritzi, ekonomia, kultura, Eliza eta historiako pertsona nabarmenekin. Euskadiko, Espainiako, Europako eta mundu osoko pertsona ospetsuek parte hartu dute *Hermesen*.

Finkatu den gure beste jarduera kultural bat Sabino Arana Sariena da. 1988an hasi zen SAF sariak banatzen, hau da, lanean jarduten hasi zen urtetik. Hasierako borondatea nahiz oraingo asmoa omenaldi zintzoa egitea da, gizartearen zerbitzugintzan edo hainbat kausatan egindako lanagatik nabarmendu diren erakunde edo norbanako guztiei.

Dagoeneko egin diren 36 edizioetan, Fundazioak 209 pertsona ospetsu, erakunde eta erakunde saritu ditu.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioaren izaera anitzak aukera eman diola urteetan zehar beste entitate eta erakunde batzuetako ordezkariekin lankidetzan aritzeko: udalekin, memoria-elkartekin, museoekin, telebista-ekoizleekin, beste kultura-, politika-, kirol- eta finantza-erakunde batzuekin, Euskaltzaindiarekin, Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Labayru Fundazioarekin, besteak beste.

Era berean, duela gutxi, zehazki 2023ko abenduan, abian jarri dugun beste proiektu bat aipatu behar dugu: JAKIN Escape Room. Pedagogia egiteko eta Euskadiko historiako gertaera garrantzitsuak ezagutzeko beste modu bat da, jolasaren eta aisialdiaren bidez.

Azkenik, azpimarratu behar da Sabino Arana Fundazioa alderdi politiko bati atxikitako lehen fundazioa izan dela 't de transparente' *** ziurtagiria lortu duena. HAZ Fundazioak ematen duen kategoria gorena da eta, webgunean aztertutako 21 gardentasun-adierazleetatik, Fundazioak % 90 eta % 100 arteko betetze-maila dauka.

2026an, Euskal Herriaren historian esanguratsuak izan diren urteurren hauek gogorarazteko jarduerak prestatuko ditu Sabino Arana Fundazioak:

- 📅 Bizkaiko Foru Barriaren onarpenaren bosgarren mendeurrena.
- 📅 Juan Sebastian Elkano euskal marinel eta munduari bira eman zion lehen itsas espedizioko komandantearen heriotzaren bosgarren mendeurrena.
- 📅 Juan Crisostomo Arriaga musikari eta musikagile bilbotarraren heriotzaren bigarren mendeurrena.
- 📅 Euskal Foruen abolizio-legearen aldarrikapenaren 150. urteurrena.

- 📅 Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* bertsolari donostiarraren heriotzaren 150. urteurrena.
- 📅 Gernikan Euzkadiko Gobernua (lehen Eusko Jaurlaritza) eratu zeneko eta Gerra Zibila piztu zuen Bigarren Errepublikaren aurkako altxamendu militarren 90. urteurrena.
- 📅 Ramón de la Sota Llano euskal enpresari eta euskal abertzale esanguratsuaren heriotzaren 90. urteurrena.
- 📅 Resurreccion Maria Azkue abade, filologo eta lehen euskaltzainburuaren heriotzaren 75. urteurrena.
- 📅 EAJ-PNV alderdiaren EBBko buru (1935-1951) Doroteo Ziaurritzen heriotzaren 75. urteurrena.
- 📅 EAJ-PNV alderdiaren EBBko buru (1905-1915) Luis Aranaren heriotzaren 75. urteurrena.
- 📅 René Cassin baionarraren eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren idazlari nagusiaren heriotzaren 50. urteurrena.
- 📅 Beste urteurren batzuk.

2026ko eginkizuna

Horrela, deskribatutako jarduerak eginez, 2026. urtean, bizi gareneko gizartearekin batera aurrera egiten eta eguneroko arazoak aztertzen ahaleginduko gara.

Horretarako, gogoeta egin eta eztabaida sustatzeko mintzagunea eta *Hermes* aldizkaria izango dira gure tresna nagusiak. Garapenerako lankidetzari lotutako hainbat gai jorratuko ditugu, hala nola nazioarteko lankidetzaren haurren eta nerabeen eremuetan. Gure iritziz, haurrak bereziki kalteberak dira pobreziaren eta bazterkeriaren inguruabarretan, eta egoera horrek behartzen gaitu lehentasunezko arreta-subjektu gisa hartzeraz lankidetzaren eremuan.

Era berean, interes orokorreko gaiak aztertuko ditugu Europar Batasunaren eremuan, Euskadik egiteko garrantzitsua izan behar duen nazioarteko ingurune geopolitikoan. Era berean, puri-puriko gaiak jorratuko ditugu, hala nola gure herritarren osasuna hobetzeko abangoardiako aplikazio teknologikoak.

Helduak elkartarekin elkarlanean, gure adinekoak kezkatzen dituzten gaiak jorratuko ditugu, hala nola etxeko istripuen prebentzioa edo foru-aldundietako langileek kudeatzen dituen egoitzei lotutako kontuak.

Era berean, gure memoria historikoaren txatalak berreskuratzea helburu duten jarduerak bultzatuko ditugu, urteurren historikoak gogoratuz, barbarako, Bizkaiko Foru Barriaren onarpenaren bosgarren mendeurrena; Euskal Foruen abolizio-legearen 150. urteurrena; lehen Euzkadiko Gobernua Gernikan eratu zeneko eta Gerra Zibila piztu zuen Bigarren Errepublikaren aurkako altxamendu militarren 90. urteurrena;

Resurreccion Maria Azkue abade, filologo eta euskaltzainburu izan zenaren heriotzaren 75. urteurrena; edo Baionan sortutako René Cassin, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren idazlari nagusia, hil zeneko 50. urteurrena, besteak beste.

Orobat, euskal musikaren memoriari buruzko mintegi bat ere antolatuko dugu arlo horretan.

Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren hiru ale argitaratuko ditugu 2026an: lehenengoa, euskal foru-antolamenduarekin zerikusia duten bi gertakari garrantzitsu jorrotuta: Bizkaiko Foru Barriaren 500. urteurrena eta Euskal Foruen abolizio-legearen 150. urteurrena; bigarrenean, lehen Eusko Jaurlaritza (Euzkadiko Gobernua) eratu zenetik eta 40 urteko diktadura frankista ekarri zuen gerra hasi zenetik igaro den 90 urteko aldia gogoratuko dugu; eta hirugarrena, euskarari eskainitakoa.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren eta Museoaren bidez, gure dokumentu-funtsak euskal gizartearen zerbitzura jartzen jarraituko dugu. Hori guztia, gero eta erabiltzaile gehiagorengana iristeko.

Gure beste proiektu bat ere ez dugu ahaztu nahi: *escape room* edo ihes-aretoa. Orain dela bi urte jarri genuen abian eta gero eta ezagunagoa eta bisitatuagoa izan dadin saiatuko gara.

Eta, jakina denez, Haz Fundazioak ematen duen «t de transparente» hiru izarreko (***) ziurtagiriari ere oratu nahi diogu.



IKERLANAK ETA FUNTSEN ANTOLAKETA

Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamabost urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharrak egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

Artxibo-funtsen antolaketa Euskadiko Artxibo Historikoarentzat

[Euskadiko Artxibo Historikotik jasotzen ditugun eskaeren arabera.]

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren funtsen antolaketa eta deskribapen informatizatua

[2025ean hasitako proiektuen bigarren aldia: José Antonio Ardanzaren dokumentazioa, EAJ-PNV alderdiaren udal erakundeak, Euzko Gudarostea...]



ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK

2.1 Artikuluak DEIA egunkariarentzat: *Historias vascas*

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatuko ditugu DEIA egunkariarentzat. Larunbatetan argitaratzen den bi orrialdeko erreportajea, Euskadiko historia aldez edo moldez ukitu duten gai historiko eta antropologikoei buruzko. Horretarako, historialari, akademiko eta adituen laguntza dugu lantzen diren gai guztietan.

2.2 Kolaborazioak irratietan, ekoiztetxeekin eta EITBrekin

Era berean, kolaborazioak egingo ditugu hainbat irratitan, eta ekoiztetxe eta EITBrekin elkarlanean, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen.

2.3 Webguneko urteurrenak

Webguneko urteurrenen sailean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin lotura duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratuko ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakutsiko ditugu, liburutegiko eta hemerrotekako aleak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak edo gure historialariei irratian egindako elkarrizketak eta abar eskuragarri jarriko ditugu.

2.4 Argitalpenak

- Alberto Irigoyen eta Josu Legarretaren *Gernika en Argentina* liburuaren euskarazko itzulpena eta aurkezpena egitea aurreikusita dago.
- Era berean, Ramon Berriozabal Azpitarteren *Semilla aventada. Primeros años del nacionalismo vasco en Álava (1894-1923)* liburuaren argitalpena ere aurreikusita dago.

3

BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiaz denaz bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa. Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ildo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dute gure instalazioetan.

Jarduera hauen helburuak ondokoak dira: gazteek eta helduek pertsona- eta lanbide-garapenean aurrera egiteko dituzten beharrezanei erantzutea eta lan-eskarmentuaren gisako aukerak eskaintzea.

4

HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2026ko ekitaldian, Hermes aldizkariaren hiru zenbaki argitaratuko ditugu, hain zuzen ere, 83., 84. eta 85. zenbakiak.

83. zenbakia: Bizkaiko Foru Barriaren onarpenaren bosgarren mendeurrena eta foru-aboliziaren 150. urteurrena

2026an, euskal foru-antolamenduaren historian garrantzi handia izan zuten bi urteurren gogora ekarriko ditugu.

Alde batetik, foru araubidearen sendotzean mugarri izan zen Bizkaiko Foru Barriaren bosgarren mendeurrena (1526) beteko da. Bestetik, haren abolizioaren mendeurren erdia izango da, 1876an, *manu militari* ezarria, eta horrek sistema historiko haren amaiera sorrarazi zuen. Bi une garrantzitsu horiek Euskadiren nortasun juridiko eta politikoan funtsezkoa den etapa baten hasiera eta amaiera darakutsate.

Euskal historian espezializatutako historialariek, Zuzenbideko legelari eta historialariek, Zientzia Politiko eta Soziologiako akademikoek eta kultura-dibulgetzaileek parte hartuko dute zenbaki horretan.

84. zenbakia: Lehen Euzkadiko Gobernuaren eraketaren eta Gerra Zibilaren hasieraren 90. urteurrena

2026an, laurogeita hamar urte beteko dira Euskadiren eta Estatuaren egungo historian berealdiko eragina izan zuten bi gertakizun jazo zirenetik.

1936an, huts egin zuen estatu-kolpe bat izan ondotik, Gerra Zibila hasi zen, Euskadin inoiz izan den gertaera historiko beldurgarri eta suntsitzaileena. Eta, testuinguru horretan, lehen Eusko Jaurlaritza eratu zen, Jose Antonio Agirre euskal abertzalea buru zela.

Zenbaki honetan, Euskal Herriko historia politikoan eta sozialean espezializatutako historialarien, 1936ko Autonomia Estatutuari eta Eusko Jaurlaritzaren eraketari buruzko ikertzaileen, legelari eta konstituzionalisten, Memoria historikoan adituen eta abarren laguntza izango dugu.

85. zenbakia: Euskarari eskainitako zenbakia.

5

GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

Mintegiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak ditugu Sabino Arana Fundazioak darabiltzan baliabide nagusiak XXI. mendean bertan bizi ditugun errealitate anitzak ezagutzeko. Jardunaldi eta topaldi horietan, hainbat jakintza-arlotako pertsonak bai eta, sarritan, kontrako ideologiak dituztenek, mahairatzen dituzte iritziak eta ideiak erkatzen dituzte, kultura-truke sustatzeko asmoz. Horrela, elkarguneak sustatzen dira kultura, politika eta gizarte ikuspegi desberdinetatik.

Jardunaldi horietako guztiak irekiak dira jendearentzat eta, horregatik, orotariko eztabaida, anitza eta diziplinartekoa ahalbidetzen da eta eztabaidak elkarren artean elikatzen dira.

Mintzaguneetan hamaika gai jorratu ditugu: Europa eta immigrazioa, bake- eta adiskidetze-prozesuak, genero-indarkeria, emakumeak eta botere politikoa, ekonomia- eta finantza-krisialdia, gazteak eta teknologia berriak, Brexit delakoa (irtenbideak eta aukerak), Zigor Zuzenbidea ETArek amaiararen aurrean... Gai horiek guztiak baliatu ditugu Sabino Arana Fundazioak bereizgarri duen aniztasunaren kultura biziberritu eta bultzatzeko.

37 urteko ibilbidean 460 hizlarik jardun dute gogoeta eta eztabaida mintzagunean eta 10.500 parte-hartzaile inguru izan dira gaurdaino antolatutako 70 mintegi eta 90 mahai-inguruetan.

Jarduera honen onuradun nagusiak fundazioak jorratzen dituen jakintza-arloetako adituak eta espezialistak dira; agintariak eta politika, ekonomia, eta gizarte esparruetako ordezkariak; iritzi-sortzaileak; irakasleak; profesionalak eta, oro har, gizartea.



MINTEGIAK

5.1 Euskal memoriaren historia: Resurreccion Maria Azkue

Aurten, Resurreccion Maria Azkueren heriotzaren 75. urteurrena dela eta, Sabino Arana Fundazioak euskal kultur adierazpide ororen memoria gogorarazteko urtero-urtero antolatzen dituen jardunaldien esparruan, «Euskal kulturaren memoria: Resurreccion Maria Azkue eta beraren ondarea» izeneko mintegia antolatuko dugu.

Saio horretan, Azkuek euskara eta euskal kultura jagoteko eta zabaltzeko egin zuen lan garrantzitsua aztertuko dugu, baita funtsezko erakundeak sortzen bete zuen eginkizuna ere. Gainera, Lekeitioko abadea bizi izan zeneko testuinguru historiko eta kulturala aztertuko dugu eta Azkueren garaikideen lanak eta ekarpenak berrikusiko ditugu, euskal identitatean izan zuen eraginaren tamaina hobeto ulertzeko.

Mintegiaren balizko edukiak:

1. Azkuek beteriko eginkizuna euskararen normalizazioan eta Euskaltzaindian.
2. Azkuek egindako lana herri-abestiak eta ipuinak biltzen.
3. Azkueren lanaren garrantzia Euskal Herriaren kultur eraikuntzan.
4. Diziplina anitzeko adituen mahai-ingurua: hizkuntzalariak, musikologoak eta historialariak, Azkueren ondarea aztertzeke eta gau egunera ekartzeko.

5.2 Euskal kulturaren memoria: euskal musikako emakumeak

Emakume musikarien oroimena gordetzeko eta zabaltzeko mintegia. Frankismo gogorraren garaian, euskal musika berritzen eta zabaltzen hasi zenean, emakumeak ere han zeuden, beren ahalegina eta hondar alea jartzen. Gai horri heldu nahi diogu eta gaur egunera ekarri, ekarpen hura ezinbestekoa eta funtsezkoa izan zelako eta aitortu egin behar dugulako.

5.3 Mintegia Oreki Fundazioarekin elkarlanean

[2026ko apirilaren 22an, asteazkenarekin. Arizmendiarietari buruzko eztabaida-saioa]

5.4 Garapenerako lankidetzak (bi mintegi)

5.4.1 «Nazioarteko lankidetzak: haurtzarora eta nerabezarora. Bizitza duina izateko eskubidea Hegoalde Globaleko herrialdeetan»

Neska-mutikoen gizataldea bereziki kaltebera da pobrezia eta bazterkeriaren ingurumarietan, eta horrek behartzen gaitu lehentasunezko arreta-subjektutzat hartzea lankidetzaren eremuan.

1989an, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa kaleratu zenetik aurrerapen handiak lortu diren arren, haurren babesari lotutako GJH gehienak betetzetik urrun gaude oraindik.

Jorra daitezkeen alderdiak: derrigorrezko lekualdatzeak, klima-aldaketa, ingurumenaren andeatzea, hondamendien arriskuak, gatazkak, osasun-zerbitzuei heltzeko modu deberdina eta gaixotasun-agerraldien gorakada. Horiek guztiek mundu osoko haurren biziraupena eta garapena arriskuan jartzen dute.

Garatu daitezkeen gaiak: Haurrak eta garapena: kalteberenen babesean aurrera egiten.

Balizko hizlariak: UNICEF, Munduko Medikak, *Save the Children*, osasun globaleko edo haurren nutrizio ikertzaileak, ACNUR, Gurutze Gorria, Afrikan edo Latinoamerikan proiektuak dituzten lankidetzak-erlako euskal GKEak, ekintza humanitarioko espezialistak, lankidetzak feministako sareak...

5.4.2 Fiskalitatearen eta erregulazioaren berrikuntzarako lankidetzaren, lurraldeko trantsizio klimatiko justuaren eta 2030 agendaren lokalizazioaren aurrerapenaren bizkorgarri

Lurralde-errealitatea eraldatuko badugu, beharrezkoa da eragile publiko eta pribatu guztiek barne-berrikuntzari ekin diezaioten, erabakiak hartzeko prozesuak eraginkorragoak izan daitezen, eta kanpo-berrikuntzari ekin diezaioten, partekatzen duten lurraldearen epe luzeko egonkortasunari eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-iraunkortasunari laguntzeko erronkarekin bat datozen beste eragile batzuekin aliantzak egitea egon dadin. Ildo horretan, erakunde publikoek behar-beharrezkoa dute gaitasunak, eskumenak eta berrikuntza eskuratzea diru-sarreraren eta gastu-politika fiskalen inguruko programak diseinatzean, bai eta lurraldea eraldatzeko prozesu horiek bizkortzeko esparru arautzaileen diseinua elkarrekin sortzean ere, giza garapen jasangarrirako trantsizio justua ontzeko, eta prozesu horren barruan, erakunde-sare demokratikoaren konfiantza sortzeko eta berriro legitimatzeko prozesua hobetzeko helburuz, herritarrei begira.

Laburbilduz, bidezko trantsizio ekologiko eta sozial baterantz aurrera egin dezagun, beharrezkoa da politika fiskaletan eta erregulatuzailetan berritzea, eta eragile publiko, pribatu eta sozialen arteko lankidetzare erabiliz egitea, aldi berean, erakunde demokratikoekiko konfiantza indartuko baita.

Jardunaldiaren helburua: zerga-sistema (zergak, aurrekontuak, gastu publikoa) eta erregulazioa (arauak, legeak, esparru administratiboak) berrikuntza eta eraldaketa soziala bultzatzeko tresna bihurtzeko erakustea, trantsizio klimatiko justu baterantz aurrera egiteko eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzeko.

Balitzko hizlariak: Euskadikoak, Eudel, Ihobe, Orkestra –Lehiakortasunerako Euskal Institutua (EHU)– Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko Saila (Ignacio Zubiri, ogasun publikoetan eta ingurumen fiskalitatean espezializatua), Gipuzkoa Klima (Gipuzkoako Foru Aldundia), Etika Aplikatuko Zentroa – Deustuko Unibertsitatea.

Espainiako Estatukoak: Forética (Madril), Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea, Berrikuntzarako Cotec Fundazioa edo Mugarik Gabeko Ekonomialarien ordezkariak, adibide batzuk jartzearen.

5.5 Artxibo historikoak gizarte garaikidean

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako jardunaldien barruan, jendeak dokumentazio historikoa eskuratzeko modu librea izan dezan, mintegi bat antolatuko dugu 2026an (zehazteke).

5.6 Europako ingurumari geopolitikoa eta Euskadiren egitekoa European (bi mintegi)

Nazioarteko ezegonkortasuna nagusi den une batean murgildurik dago Europa egun: tentsio geopolitikoak, gatazka armatuak, energia-krisia, migrazioak, industria-

garapenerako lehengai kritikoen eskasia eta abar. Inguruabar horretan, funtsezkoa da gogoeta egin dezagun dinamika horiek estaturik gabeko nazioei eta nazio historikoei, hala nola Euskadiri, zelan eragiten dieten aztertzeko eta zer eegiteko bete dezaketen Europa lehiakorrago, demokratikoago eta kohesionatuagoaren eraikuntzan.

Mintegian, Oihane Agirregoitia europarlamentaria izango da, bai eta Europako geopolitikako adituak, nazionalismoetan eta Europako Zuzenbidean adituak diren irakasleak, erakundeetako ordezkariak, eragile ekonomiko eta sozialak eta abar.

5.7 Osasuna XXI. mendean

Mintegi hau **ESTIA-Biarritzen** egingo da, SOPHiA GENETICS konpainiaren laguntzaz. Teknologia berriak aplikatzeak eskaintzen dituen aukerak aztertuko dira, besteak beste:

- Adimen artifiziala
- Aplikazio genetiko berriak
- Pertsonalizazioa
- Robotika

Era berean, elikaduraren eta osasun mentalaren alderdiak jorratuko dira, gaur egungo osasunaren ikuspegi integralagoan oinarrituta.



HITZALDIAK / MAHAI-INGURUAK

5.8 Euskal foruei buruzko hitzaldiak: Bizkaiko Foru Barria eta foruen abolizioa

2026an, euskal foru-antolamenduaren historian garrantzi handia izan zuten bi urteurren gogora ekarriko ditugu.

Alde batetik, foru araubidearen sendotzean mugarri izan zen Bizkaiko Foru Barriaren bosgarren mendeurrena (1526) beteko da. Bestetik, haren abolizioaren mendeurren erdia izango da, 1876an, *manu militari* ezarria, eta horrek sistema historiko haren amaiera sorrarazi zuen.

Bi une garrantzitsu horiek Euskadiren nortasun juridiko eta politikoan funtsezkoa den etapa baten hasiera eta amaiera darakutsate.

5.8.1 Hitzaldia/Elkarrizketa: Bizkaiko Foru Barriaren bosgarren mendeurrena

2026an, bostehun urte beteko dira Bizkaiko Foru Barria aldarrikatu zenetik, hots, autogobernuaren oinarriak eta lurraldearen gizarte-antolaketa sendotu zituen mugarri juridikoa ezarri zenetik. Testu arauemaile hori 1526an onartu zen, eta hainbat mendeetan Bizkaiko nortasuna zehaztu zuten eskubideak, betebeharrak eta ohiturak jaso ziren bertan, erkidegoaren kohesioa eta, kanpoko botereen aurrean, askatasunen defentsa bermatzeko xedez.

Hitzaldian, honako hauek aztertuko dira:

- Bizkaiko Foru Barria sortu zen testuinguru historikoa eta foru-tradizioarekin izan zuen lotura.
- Foruak Bizkaiko bizitza sozial, ekonomiko eta politikoan izan zuen eragina. Gerora, forua gainerako lurralde historikoetara zabaldu zen.
- Printzipio haien indarra eskubide historikoei eta autogobernuari buruzko egungo eztabaidan.

Foruen tradizio juridikoak nortasun kolektiboaren eraikuntzan eta Euskal Herriaren bilakaera instituzionalean nola eragin duen hausnartzeko eta hitz egiteko aukera izango da.

5.8.2 Hitzaldia: 150 urte foruak indargabetu zirenetik

2026an, foruen abolizioaren 150. urteurrena ere gogoratuko dugu, gertakari horren ondorioz, euskal lurraldeen eskumen historiko gehienak galdu baitziren Hirugarren Karlistaldiaren ostean. 1876an, foru-araubidea desagertu zenean, aro berria hazi zen, zentralizazioan eta eraldaketa ekonomiko eta sozialean oinarrituta.

Konferentziak honako gai hauek jorratuko ditu:

- Foru-abolizioaren kausak eta ondorioak XIX. mendeko testuinguru politikoan.
- Orduko eragina euskal gizartean, fiskalitatean nahiz erakunde-antolaketan.
- XX. mendean, autogobernua hein batean berreskuratzea ekarri zuen ondarea eta geroko aldarrikapena.

Foruen galerak historia garaikidea zein neurritan baldintzatu zuen eta foruen oroimenak gaur egungo eztabaida politikoan zein heinetan jarraitzen duen ulertzeko aukera emango du topaldi honek.

5.9 Gerra Zibilaren eztabaidaren eta lehen Eusko Jaurlaritzaren eraketaren 90. urteurrena (hitzaldiak eta elkarrizketak)

2026an, laurogeita hamar urte beteko dira Euskadiren eta Estatuaren egungo historian berealdiko eragina izan zuten bi gertakizun jazo zirenetik: lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eraketa eta Gerra Zibilaren hasiera. Gogoeta egiteko balio behar digu urteurren horrek, autogobernuaren itxaropenaren ondotik, gerra fratizida eta lau hamarkadaz iraun zuen diktadurako garai nahasiaren inguruan.

Hitzaldietan, honako gai hauek jorratuko dira:

- Autonomia Estatutua onartzea eta 1936an lehen Eusko Jaurlaritza eratzea ahalbidetu zuen testuinguru historikoa.
- Gatazka belikoak euskal gizartean eta euskal erakundeetan izan zituen berehalako ondorioak.
- Gobernu haren memoria eta ondarea egungo eraikuntza demokratikoan.

Jardunaldiak aukera emango digu autonomiaren eta demokraziaren defentsak indarkeriari eta errepresioari aurka nola egin zien aztertzeko, eta bizikidetzeta eta balio demokratikoak indartzeko zer irakaspen atera dezakegun balioesteko.

5.9.1 Gerra Zibilaren hasieraren eta altxamendu militarren 90. urteurrena

Gerraren eta ondoko diktaduraren eragin zuzena. Erbestea, errepresioa, euskararen jazarpena, memoria historikoaren eskubidea...

15.9.2 Gernikan eratutako lehen Euzkadiko Gobernuaren 90. urteurrena

Ertzaintza, Osasun Sistema, Hezkuntza, Industria eta Justizia lehen Eusko Jaurlaritzan eta gaur egun.

5.10 EAJ-PNV alderdiaren EBBko buru Doroteo Ziaurritzen eta Luis Aranaren 75. urteurrena. Bi hitzaldi (Bilbo eta Gipuzkoa)

2026an, EAJ-PNV alderdiaren EBBko bi presidente, Doroteo Ziaurritz (1935-1951) eta Luis Arana (1908-1915), hil zireneko 75. urteurrena gogoratuko dugu.

5.10.1 Hitzaldia Bilbon, EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidente Aitor Estebanen eta bi historialariren eskutik

5.10.2 Hitzaldia Gipuzkoan (Tolosan edo Donostian)

5.11 Juan Crisostomo Arriaga musikari eta musikagile bilbotarraren heriotzaren bigarren mendeurrena

2026an, berrehun urte beteko dira Juan Crisostomo Arriaga «euskal Mozart» ezizenez ezaguna, hil zela, haren jenialtasun eta talentua 19 urterekin itzalita. Arriagaren lanak, laburra baina bizia, Europako musika klasikoaren erreferente izaten jarraitzen du. Hitzaldi antolatuko dugu beraren ondarea omentzeko eta arte-sorkuntzak kultura-identitatean duen garrantziari buruzko gogoeta egiteko.

Gai hauek jorratuko dira: Arriagaren bizitza eta obra, bilbotarraren lehen konposizioak eta nazioarteko ospea; XIX. mendeko musikaren testuingurua eta Arriagak ondorengo musikan izan zuen eragina; eta euskal kulturaren eta kultura unibertsalean utzitako ondarearen indarra.

5.12 Juan Sebastian Elkanoren heriotzaren bosgarren mendeurrena

Euskal marinela izan zen 1522an munduari bira itsasontziz eman zion lehen nabigatzailea. Juan Sebastian Elkanok nortasun ekintzailea zuen, espiritu esploratzailea, eta ospe handiko itsasgizona izan zen. Euskal izaera nabarmena eta adoretzuko gizona, Euskal Herriaren eta bertoko kulturaren ordezkaria. Elkanok bost ontzietako baten pilotu hasi zuen bidaia, eta Victoria itsasontziko kapitain amaitu zuen

itsas bidaia. Victoria ontzia izan zen espedizioa espedizioa burutu zuen bakarra, irten ziren bostetatik, neke eta baja ugari izan ondotik.

Elkanoren heriotzaren 5. mendeurrena dela eta, 1526an, hitzaldi bat eta omenaldia antolatuko ditugu Getarian (Gipuzkoa), itsasgizonaren jaioterrian.

5.13 Euskadiko Botere Judizialari buruzko hitzaldia eta elkarrizketa

Emilio Olabarria diputatu ohiak, Toledoko Itunaren sortzaileetako bat eta Deustuko Unibertsitatean Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea denak, Botere Judizial independente eta eraginkor batek egonkortasun demokratikorako duen garrantziaz hausnartuko du, gero eta handiagoa den erakustaldi mediatikoa kritikatu du eta euskal sistema judizialaren bilakaera historikoa eta etorkizuna aztertuko ditu.

Ondoren, Euskadin eskumen judizialak berreskuratzeko beharrari buruzko elkarrizketa egingo da, foru tradizioan oinarrituta, euskal errealitate soziolinguistikoari egokitzen zaion independentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

5.14 Ramon de la Sota Llanoren heriotzaren 90. urteurrena

Ramon de la Sota Llano euskal ekonomiaren eta bizitza publikoaren protagonista nagusietako bat izan zen XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen lehen hamarkadetan. Castro Urdialesen jaio zen 1857an, itsas tradizioko familia batean hazi zen, eta laster bideratu zuen bere jarduera ontzigintzako eta merkataritzako negozioetara, garai hartako Bilbo indartsura etorrira. De la Sotaren enpresa-ikuspegia bat etorri zen lurraldearen hedapen ekonomiko handienarekin, meatzaritzaren jarduera bizia eta portua nazioarteko merkataritzaren ardatz zela.

Aldi berean, jarduera politiko eta kultural bizia garatu zuen. Euskal abertzaletasunaren gertuko jarrera zuela, funtsezko eragilea izan zen aurrerapen ekonomikoa zein eskubide historikoen eta euskal nortasunaren defentsa aldarrikatzen zituen enpresaburuen antolaketan. Gerra Zibilean, erregimen frankistak bere ondarea konfiskatu zuen eta Portugalen erbesteratuta hil zen 1936an.

Ramon de la Sotak utzitako ondarea, ekimen ekonomikoaren, nazioarteko ikuspegiaren eta konpromiso politikoaren uztarduratik ehunduta, funtsezko oinarria da oraindik ere Bizkaiak industria-aroan izan zuen eraldaketa ulertzeko.

5.15 Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* bertsolariaren heriotzaren 150. urteurrena (hitzaldia Donostian)

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* (1831-1876) XIX. mendeko euskal poeta herrikoi nagusietakoa izan zen, funtsezkoa bertsolariaren bilakaeran. Jatorri apaleko donostiarra izanagatik, bere estiloaren fintasun eta modernotasunagatik nabarmendu

zen, lirismoa, ironia eta sentiberatasun erromantiko sakona uztartzen zituzten bertsoak kantatzen zituela. Gaur egun arras ezagunak diren *Bein batian Loyolan* eta *Ai ama Euskalerrria* konposizioen egileak euskarazko poesia berri zuen eta arrasto iraunkorra utzi zuen euskal kulturari. 1876an hil zen, Bigarren Karlistadan Donostiaren setioan izandako leherketa baten ondorioz.

5.16 René Cassinen heriotzaren 50. urteurrena

Hitzaldia Baionan.

5.17 Garapenerako lankidetzak (lau hitzaldi)

5.17.1 «Haurrak, nerabeak eta gazteak mugaldeko herrietan: gizakien salerosketaren eta esplotazioaren aurkako babesak»

Migrazioaren eta babeslekuaren gaitan, arreta berezia jarri behar dugu inoren kargura ez dauden adingabeengan, arrisku handia baitute salerosketaren, sexu-esplotazioaren eta era guztietako abusuen biktima izateko, eta horrek kalte fisiko eta psikologikoa eragiten die, askotan, konponezina umeentzat.

Mintegiaren helburua da krisi humanitarioek, ingurumenekoek eta gerrakoek haurrei neurritz kanpo eragiten dietela salatzea.

Balitzko hizlaria: Liliana Suarez Navaz Espainiako erbestearen alaba da Latinoamerikan, Antropologiako doktorea da Stanforderko Unibertsitatean eta deskolonizazioaren aldeko ekintzaile feminista. Teoria eta praktika politikoan oinarrituta, mugako erregimenen naturalizazioaren, mugikortasunaren ilegalizazioaren eta arrazakeriaren aurka egiten du. Suarez-Navazek Kalifornian, Ekuadorren, Txilen, Mexikon, Espainian, Marokon eta Senegalen egin du lan.

5.17.2 «Haur lekualdatuak: migrazioak, larrialdiak eta aldaketa klimatikoa»

Haurrei eta gazteei bereziki eragiten diete larrialdiek eta krisi humanitarioek, hala nola ingurumen-hondamendiek, neurri handi batean klima-aldaketak eragindakoak, edo gatazka armatuak; izan ere, oso kalteberak dira gaixotasunen, desnutrizioaren eta indarkeriaren aurrean, sexu-indarkeria ere kontuan hartuta, eta osasun fisikoa ez ezik, buruko osasunak ere kalterik hartu ohi du.

Balitzko hizlaria: Leila Nachawati, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko (UC3M) Komunikazio irakaslea; Nazioarteko Kazetaritza, Hedabideetako Indarkeria eta Komunikazioa eta Herritarren Partaidetza Sarean irakasten ditu bertan. *Syria Untold*, 2012an Beirutetik sortutako hedabide independenteen plataforma, globala, hedabidearen sortzaileetako bat da.

5.17.3 «Etorkizuneko umeak: hezkuntza eta belaunaldien arteko ekitatea»

Genero-berdintasuna funtsezko elementua da haurrentzat etorkizun hobea eraikitzerakoan. Haurren ongizatea eta garapena hobetzen ditu, eta, gainera,

hazkunde ekonomikoa bultzatzen laguntzen du. Haurtzaroaren Munduko Egoeraren 2024ko aurreikuspenen arabera, mundu-mailan, genero-desberdintasunak gaur egun baino leku txikiagoa izango du haurren bizitzan 2050era iristean. Hala eta guztiz ere, haur asko eta asko genero-desberdintasun handiko gizarteetan biziko omen dira mende honetako 50eko hamarkadan, batez ere, Ekialdeko eta Hegoaldeko Afrikan eta Mendebaldeko eta Erdialdeko Afrikan, hau da, mundu osoko haur gehienak biziko diren hiru eskualdeetako bitan. Mendebaldeko eta Erdialdeko Afrikan, kalkulatzen da ehuneko 11 puntuko genero-arrakala izango dela goi-mailako bigarren hezkuntzaren amaieran aipaturiko garaian.

Balizko hizlaria: Haurralde Fundazioko Patricia Ponce. Argentinan espainiar hori emakumeen eskubideen defendatzaile sutsua da eta Haurralde Fundazioaren zuzendaria eta sortzailea. Euskadiko GKE horrek emakumeen eskubideak sustatzen eta defendatzen lan egiten du, batez ere, berdintasunaren eta ahalduntzearen arloan.

5.17.4 «Haurrak arriskuan: pobrezia, osasuna eta desberdintasuna munduan»

Unicef erakundearen 2024ko urteko txostenetik ateratako datuen arabera, inoiz txertorik jaso ez duten haurren kopurua 600.000 handitu da 2022tik, eta guztira 14,5 milioira iritsi da (2019an baino 1,7 milioi gehiago). Era berean, elikadura-pobrezia, hau da, lehen haurtzaroan elikagai nutritiboak eta askotarikoak eskuratzeko eta kontsumitzeko ezintasunak, 5 urtetik beherako 181 milioi haurri eragiten die, eta 193 milioi haur inguruk hazkundearen atzerapena jasaten dute.

Era berean, 2.200 milioi pertsonak ez dute arriskurik gabe kudeatutako edateko uraren hornidura-zerbitzurik, 3.400 milioik ez dute arriskurik gabe kudeatutako saneamendu-zerbitzurik, eta 2.000 milioik ez dute oinarrizko higiene-zerbitzurik. Horren ondorioz, haurren erikortasun-tasa izugarri handitu egiten da, eta, gainera, neurritz kanpo eragiten die emakumeei eta neskei, ura garraiatzeaz arduratu ohi baitira.

Laugarren hitzaldi horretan, haurren pobrezia ertx anitzak aztertuko ditugu, baita estutasun horrek osasunean, nutrizioan eta garapenean duen eragina ere.

Balizko hizlariak: Haurren Eskubideen zuzendari nagusia, Sandra Gómez de Garmendia; Save de Children; Unicef; CEAR...

5.18 Helduak (bi hitzaldi)

Helduak Elkartearekin lankidetzan, adinekoak egun gehien kezkatzen dituzten zenbait gairi buruzko bi hitzaldi antolatuko ditugu.

5.18.1 Etxeko istripuen prebentzioa

5.18.2 Adinekoen egoitzak

5.19 Hitzaldia/Eztabaida: «Aberriaren impasseak»

Joseba Zulaikaren gogoeta hau premisa argi batetik abiatzen da: «ez gaude, ez iraultzaren aroan, ez eraldaketan, *impasse* batean baizik» —bada, egonezina eragiten duen geldialdi batean— euskal politikan eta gizartean. Egoera hori aztertuko dugu mintegian.

5.20 Hitzaldia/Eztabaida: «Panfleto bat atzenduraren kontra»

Pello Salaburuk idatzitako azken lanean kostatuta aurrera egiteko jokabidearen aurka ohartarazten ari zaigu, jokabide horrek iraganari muzin egitea zuzena dela aldeztu baitu. Horregatik, gertatutakoaz hausnartu eta onartu gabe egoera ezin dela gainditu aldarrikatzen du Salaburuk.

5.21 Euskal Abertzaletasunaren Agiriak antolatuta, ondoko hitzaldiak eskainiko dira:

Ikus-entzunezkoen emanaldiak eta gai hauei buruzko hitzaldiak antolatuko ditugu:

- **Espedizioak.** Dokumentalak, film laburrak eta beste ezagutarazteko gunea. Aurten, baleazaleen lana eta euskal ekonomian utzi zuten arrasto sakona jorratuko ditugu.
- **Ama Lurra.** Gureaz hausnartzeko eta gurea zaintzeko espazio berria. Ama Lurraren ateak zabalduko ditugu museoan, gure inguruarekin hitz egiteko espazio bizia.
- **«Liburuaren txokoa».** Elena Moreno idazleak bere lanetako bat ekarriko du sail honetara: *La frontera lleva su nombre* («Ainaren» istorioa).
- **«Itsasoa, berdintasun-lurraldea».** Sail honetan, itsasoan gertatu diren emakumeen eta gizonen bizipenak erakutsiko ditugu.
- **«Emakume apartak»** Begoña Aristegi eta Mariú Gámbara D'Erricoren eskutik, honako izenburu honen ildoan: *Aurrerantz: berrasmatu eta bizitzarekin biraka ibili*.
- **«Guztionezako kirola»** Janire Gonzalez Etxabarri, World Surfing Games jokoetako munduko txapelduna.
- **«Museoko gauzakiaren bizitza».** Sail honetan, museoan egunero egiten diren funts eta jarduerekin zerikusia duten hainbat gai garatuko ditugu.
- **«Gazte ekintzaileak».** Sail honetan, ametsak bete dituzten gazteak ezagutarazi nahi ditugu.

Aurten, BIZIPOZ proiektua ezagutarazi nahi dugu. Gipuzkoako kooperatiba bat da, gazteek sortutakoa, eta adinekoen zahartze aktiboa, osasungarria eta parte-hartzailea sustatzeko programak diseinatu eta garatzen ditu.



EUSKARA

Euskarari buruzko mintegi bat antolatuko dugu Euskaltzaindiarekin elkarlanean. Bertan, «Euskara XXI. mendean» gaia jorratuko dugu, besteak beste, sare sozialetan, ikus-entzunezko plataformetan, hezkuntza eta kulturaren, lan-ingurunean... duen presentzia aztertzeko.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eta Museoa, funtsezko tresnak euskal gizartearen garapenean

Sabino Arana Fundazioa 1988 urrian sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa. Sorrerako helburuetako bat Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eratzea izan zen eta horretan egin zituen ahaleginak eta bi. Jakina denez, agiritegi historikoek herrialde jakin baten historia biltzen dituzten funtsak gorde, kudeatu, zabaldu eta herritarren eskueran jartzen dituzte. Gaur egun, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak dokumentazio historiko esanguratsua dauka hainbat funtsetan banatuta: Agiritegia, Liburutegia eta Hemeroteka. Agiritegiko funtsetan, aipatzekoak dira XIX. eta XX. mendeetako fitxategi historikoak, erbestealdian ziren euskal ordezkariak eta 1936ko gerran sorturiko funtsak, herrialdearen barruan nahiz kanpoan; era berean, alderdi edo elkarte politikoen agiriak, kultura-elkarteen agiriak, enpresen agiriak eta norbanakoen agiriak ere badaude.

Liburutegiak eta Hemerotekak Historia Garaikideari, Politikoari, Antropologiari, Zuzenbideari eta Gizarte Zientziei buruzko liburuak gordetzen dituzte. Milaka dokumentu eta objektu, guztiak ere atal egokian sailkatu, deskribatu eta instalatu behar direnak. Horiez gain, Euskal Abertzaletasunaren Museoan jasotako dohaintzak aipatu behar ditugu. Azpimarratu beharra dago Fundazioan jasotzen diren dohaintza guztiak, bai Agiritegian, bai Museoan, altruistak direla, hau da, ez dago kontraprestazio ekonomikorik. Sabino Arana Fundazioa da abertzaletasunaren inguruko agiritegi eta museo historikoa sortu, kudeatu eta zaintzen duen fundazio bakarra. Bi erakundeok gizartearen zerbitzuko jarduteko eta gure ondare historiko eta kulturala zabaltzeko asmoz sortu ziren. Azken batean, gure memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten dugu, beste ezein fundaziok egiten ez duen moduan.

Agiri, gauzaki, argazki eta bestelako guztiak ikertzaileen, norbanakoen, hedabideen eta besteren esku daude. Eta bertan dauden funtsen erabilgarritasun eta garrantziaren erakusgarri, esan dezagun erruz kontsultatu direla. Agiritegiko dokumentazioa baliatu dute gudari, ertzain, preso eta iheslari askok pentsioa edo kalte-ordainak kobratzeko.

Izan ere, gure ahalbideen heinean, eskaera guztiei erantzun egiten diegu. Urte hauetan guztietan, dokumentazioari lotutako eguneroko zereginez gain (erregistroa eta deskribapena, gordetzeko eta zabalkunde egiteko) eginkizun atsegina dugu banako zein taldeko erabiltzaileei arreta egitea, ikertzaile profesionalak nahiz informazio jakinen baten bila gurera datozen norbanakoak izanik ere. Eta hori guztia egiten dugu inolako kontraprestazio ekonomikorik eskatu gabe.

Gure funtsak erabiltzeko, ez da baimen berezirik behar; gainera, esan dezakegu gure funtsak erabili dituzten ia guztiek oso gustura hartu dituztela eskainitako dokumentazioa, hartutako informazioa eta jasotako tratua.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago hedabideek, herri-erakundeek eta bestelako antolakundeek askotan baliatzen dituztela gure funtsak liburuak irudiztatzeko, artikulua hornitzeko, erakusketak antolatzeko... eta guztiz azpimarragarria da bertako dokumentazioa oinarritzeko gertatu izana ikerlan eta argitalpen ugari bideratzeko.

Agiritegia eta museoak aintzat harturik, ia 10.000 kontsultari erantzun diegu eta ia mila ikertzaile etorri dira gure kontsulta-aretoa. Euskal ikertzaileak nagusi diren arren –Bizkaiko Lurralde Historikoan gaudela eta– katalanek, madrildarrek, frantsesek, alemanek, amerikarrek, japoniarrek eta bestek egin dituzte kontsultak gure agiritegian. Ikertzaileek gure agiri-funtsak erabili dituzte hainbat argitaletxetako ehun bat argitalpenetan. Beste alde batetik, gure fundazioak ia-ia 200 lan argitaratu ditu, monografiak eta ikus-entzunezkoak kontuan hartuta.

Bestetik, Museoak 210 erakusketa propio –iraunkorrek nahiz aldi baterakoak– baino gehiago antolatu ditu.

Museoko gauzakiak eta agiriak ehun erakusketetan baino gehiagotan egon dira ikusgai Euskadin, estatuan eta nazioartean: Madril, Londres... Argazki-funtsak ere sarritan erabili dira Euskadiko, estatuko eta nazioarteko hedabideetan nahiz telebista ekoiztetxeetan.

Gaur egun, museoaren zeregin nagusiak ondokoak dira: argazki-funtsa katalogatzea, dekorazio-arten eta arte grafikoen funtsa berrantolatzea eta dohaintza berriak erregistratzea, inbentarioan jasotzea eta katalogatzea. Hala, milaka objektuen eta ehunka mila argazkiren zaintza kudeatzen du.

Gainera, nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Agiritegi Historikoa 2013an zabaldu zela gure lankidetzari esker, eta herritar guztien esku jarri duela euskal administrazio publikoaren 1936tik aurrerako funts historikorik behinena. Sabino Arana Fundazioak dokumentazio ugari hori guztia zaindu, kudeatu eta ikertzaile nahiz norbanakoen esku jarri du 90eko hamarkadatik. Antzeko zerbaitek gertatu zen, hein txikiagoan –funtsen tamainagatik diogu, ez garrantzi historikoagatik–, 2002. urtean. Urte hartan, Kataluniako Arxiu Nazionalari eman genion ordura arte geuk gordetako eta zaindutako Kataluniako Generalitat-earen dokumentazio historikoa (Errepublika eta erbestealdia).

A) AGIRITEGIA

- Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren funtsen antolaketa eta deskribapen informatizatua:
 - EAJ alderdiaren EBBren 80ko eta 90eko hamarkadetako gutuneria berriz instalatzea eta deskribatzea.
 - EAJ-PNVren Kanpo Batzordearen Atalaren sailkapena, 1977-2000.
 - *Euzko Gudarostea* funtsa antolatzeko bigarren fasea, 1985-2000.
 - José Antonio Ardanza; EAJ-PNVko kide gisa gorde den dokumentazioa eta Araba Buru Batzarrarekin (ABB) 90eko hamarkadan izan zuen harremana datu-basean sailkatzea eta erregistratzea.
 - Elgoibarko EAJ-PNVren Udal Batzarra.
 - «Fundición Julián de Abando S.A. (1898-1985)» enpresaren artxiboa.
- Urtean zehar jasotzen diren norbanakoen dohaintzetan datozen dokumentuen funtsak eta bildumak sailkatzea, erregistratzea eta instalatzea.
- Erabiltzaileentzako eta ikertzaileentzako arreta: kontsultak jasotzea (erregistroa eta erantzunak) eta ikertzaileentzako zerbitzua aretoan eta urrutitik (informazioa, dokumentazioa ematea eta jasotzea, fotokopiak egitea, kopiatu beharreko dokumentazioa eskaneatzea, irudi digitalizatuak pdf fitxategi babestuetan bidaltzea...).
- Euskarriak helaraztea ekoiztetxeei eta hedabideei, gure historiako gertaera edo pertsona jakin batzuei buruzko lanak egin ditzaten.
- Laguntza eta aholkularitza ematea Sabino Arana Fundazioak antolatzen dituen beste jarduera batzuetan.
- 2026an betetzen diren gure historiako urtemugekin lotutako jarduerak gauzatzeko, zabaltzeko edo dokumentu-euskarriak eskuetatzen laguntzea, besteak beste:
 - Bizkaiko Foru Barriaren 500. urteurrena eta foru-abolizioaren 150. urteurrena.
 - Gerra zibilaren eztearen eta lehen Euzkadiko Gobernuaren eraketaren 90. urteurrena, bi-biak 1936an.
 - Luis Arana Goiri eta Doroteo Ziaurritz EBBko buruak eta Resurreccion Maria Azkue lehen euskaltzainburua hil zireneko 75. urteurrena.

- Artxibo historikoak gizarte garaikidean.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak urtero antolatzen dituen jardunaldien barruan, erakunde horien berezitasunak ezagutarazteko eta, oro har, jendeak dokumentazio historikorako sarbide askea errazteko helburuz, beste mintegi bat antolatuko dugu 2026an. Mintegia, ohi bezala, dokumentazioari lotuta lan egiten duen sektoreari (artxiboak, liburutegiak eta abar), ikertzaileei eta, oro har, gizarteari begira antolatuko da.

B) LIBURUTEGIA

- Hemerotekan dohaintza eta/edo erosketa bidez (harpidetzak) eskuratzen diren titulu eta ale berrien erregistro-fitxak kudeatzea. Zenbakien antolaketa kronologikoa egitea eta gordailura eramatea.
- Norbanakoen dohaintzetatik datozen obrak hautatzea. Gure agiritegian etengabe kontserbatzeko, erabiltzeko eta kontsultatzeko modukoak ez direnak hirugarrenei eskualdatzen zaizkie, eta oraindik ere zelanbaiteko balioa dutenak (historikoa, politikoa, sentimentala...) Liburutegiaren Urrutiko Gordailuan gordetzen dira, Artean.
- Urrutiko gordailu horretan bildutako aleen antolamendua, berrinstalazioa eta azaleko erregistroa/deskribapena.

C) HEMEROTEKA

- Hemerotekan dohaintza eta/edo erosketa bidez (harpidetzak) eskuratzen diren titulu eta ale berrien erregistro-fitxak kudeatzea. Zenbakien antolaketa kronologikoa egitea eta gordailura eramatea.
- Errepikatutako aleak garbitzea eta nolabaiteko balioa duten aleak Arteako urruneko hemerotekara eramatea.
- Arestian aipatu dugun Urrutiko Hemerotekan (Artea) gordetako bildumak antolatzea, berriz instalatzea eta erregistratzea/azaletik deskribatzea.
- 'Hustuketa' izeneko datutegia (orokorra) elikatzea: gaur egungo egunkari eta aldizkarietan (DEIA, Hermes, Historia Contemporánea...) nahiz argitalpen historikoetan (Euzkadi, Euzko Deya...) argitaratu diren euskal abertzaletasunaren edozein alderdiri buruzko artikuluak erregistratzea.

Atal honetan, esan beharra dago Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian unibertsitateko ikasle gazteak hartzen direla eta euren jarduera zuzentzen dela urtero-urtero, gure instalazioetan praktikak egin ditzaten, gure dokumentazioa erabiliz, eta gradu-ondoko ikasleak ere hartzen ditugula, EHUK Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ematen dituen lan-trantsizioko beken onuradunak, hain zuzen ere, iraupen handiagoko lanak, teknikoagoak eta anitzagoak egin ditzaten.

D) ARGITALPENEN KONTROLA / ARTIKULUAK / ARGITALPENAK / HITZALDIAK / IKERKETA / ERAKUSKETAK

- DEIA egunkariarentzat, asteroko artikuluen argitalpena koordinatzea eta gainbegiratzea, *Historias vascas* izeneko sailaren barruan.
- Hedabideekin (prentsa, irratia eta telebista) lankidetzan aritzea, eduki historikoak, efemerideak eta abar zabaltzeko.
- Hitzaldiak ematea.
- Mahai-inguruetan, biltzarretan eta adituen jardunaldietan parte hartzea.
- Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako mintegia antolatzea. Gure antzeko beste erakunde batzuetako eta beste lurralde batzuetako ordezkariak parte hartu ohi dute jarduera horretan, haien errealitateak ezagutzeko eta haien esperientzietatik ikasteko.
- Sabino Arana Fundazioak antolatzen dituen erakusketetarako euskarri dokumentala ematea.
- Fundazioak berak antolatzen dituen beste zeregin batzuetan laguntzea (mintegiak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, emanaldiak...)

E) INFORMATIKA - WEBGUNEA - SARE SOZIALAK: INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA

Sabino Arana Fundazioan egiten diren hitzaldien, mintegien, liburuen aurkezpenen eta abarren grabazioak Internetera igotzen dira, geroago gure web-orritik edo YouTubeko profiletik ikusi ahal izateko.

Era berean, Agiritegiak euskarri historiko eta dokumentala emango die webgunean, *Historias vascas* sailean eta sare sozialetan (Facebook, Instagram eta Twitter) zabaltzen diren urteurrenei eta eguneroko albisteei.

2026an esperientzia pilotuei ekingo diegu, Adimen Artifizialak eskaintzen dituen tresnak aplikatuz, gure eduki historikoak hobeto ikusarazteko eta zabaltzeko.

[1] Helburuak

2026ko ekitaldian, museoaren funtsak (arte grafikoak eta dekorazio-arteak) birkatalogatzea eta berriro instalatzea izango dugu helburu, bai eta DEIA egunkariak emandako negatiboen inbentarioa egitea ere.

Prozesua zehatza eta neketsua da; izan ere, funtsa osatzen duten irudi guztiak digitalizatu eta kokaleku berria esleitu behar diegu, bai eta bi funts horiek osatzen dituzten ale guztien kontserbazio-egoera aztertu ere.

Era berean, dohaintza gisa jaso ditugun objektuak eta materialak katalogatuko ditugu, eta, behar izanez gero, zaharberitu egingo ditugu.

Argazki-funtsari dagokionez, DEIAk emandako negatiboen inbentarioa egiten jarraituko dugu, bekadunak lan horretan ari baitira. Hala berean, gure funtsaren zati bat kargatuko dugu, bai gure webgunean, bai Eusko Jaurlaritzaren plataforman.

2026an, EHUko Arte Ederren Fakultateko «Agiri Kulturala» proiektuan parte hartzen jarraituko dugu. Bertan, museoko zenbait jardueratan parte hartzen duten ikasleek puntuak jasotzen dituzte unibertsitateko kreditu gisa erabiltzeko.

Prebentziozko kontserbazio-jardueri ere ekingo diegu, hau da, bildumen balizko narriadurak ahal bezainbeste saihesteko beharrezko neurriak hartuko ditugu eta, horrela, tratamendu konplexuagoak saihestuko ditugu etorkizunean.

Gure proposamen didaktikoa eguneko zentroetara ere igorriko dugu, bai eta «Nor gara gu?» erakusketa iraunkorraren publizitatea ere hainbat gizatalderi, hala nola: APNABI, autismoaren espektroaren nahasmendua duten pertsonen familien elkarte...

2026an, halaber, Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatzen dituen jarduera didaktikoak indartu nahi ditugu, eta gure instalazioak eta zerbitzuak ikastetxeen zerbitzura jarri, haien curriculum-programan lagungarri izan daitezen. Horretarako, azken urteotan garatu ditugun jarduerak eskaini nahi ditugu, bai jorratutako gaiak, bai adin-tarteak zabalduz, ahalik eta ikasle gehienengana iritsi ahal izateko, unibertsitateko ikasleak eta adinekoak ere helburu jarrita.

Ilido horretan, gertaera historikoetan oinarritutako gure ihes-aretoei balioa emango diegu, gure historiara hurbiltzeko modu dibertigarri eta didaktikoa delakoan.

Era berean, ikastetxeetako ikasleentzako tailer berriak sortzen jarraituko dugu hezkuntza-kurrikuluaren barruan; horrez gain, tailerrak landuko ditugu aisialdiko elkarte, bestelako elkarte eta hirugarren adineko elkarteetako kideentzat, Gabonetan antolatzen ditugun tailerrez gain.

[2] Jarduerak

Museoko arte grafikoen eta dekorazio-arten funtsak berriro instalatzea eta birkatalogatzea biltegi-espazio berri batean

Biltegi berriak atondu ditugunez, bi funts horietako objektuak lekualdatuko ditugu, eta horien kontserbazio-egoera zein den eta piezaren batek zaharberritzea behar duen ikusteko baliatuko dugu aldaketa.

Prebentziozko kontserbazio-programa ere garatuko dugu, oso ekimen garrantzitsua baita gure funtsen kontserbazioa optimizatzeko. Horretarako, kutxa espezifikoak sortuko ditugu dekorazio-arteetako pieza batzuk gordetzeko; kartelak eta arte grafikoetako aleak melinex plastikoan bilduko ditugu planoen ontzietan edo album egokietan jarri aurretik.

Praktiketako ikasleek egiten dituzte zeregin horiek, betiere Arte Garaikideko Kontserbazio masterreko irakasleek gainbegiratuta.

Tere Ganboaren argazki-bilduma eta Begoña de la Sotaren eta Habana itsasontziaren 1920 argazki-bildumak katalogatzea eta digitalizatzea

Negatiboen hainbat erroilutan gordetako irudi argitaragabeak eskaneatu, erregistratu, katalogatu eta kargatuko ditugu, herritarrek kontsultatu ahal izan ditzaten, bai museoaren web orrian (<https://www.museodelnacionalismovasco.eus/>), bai Eusko Jaurlaritzaren Ensimen programan.

Horretarako, deskribapen fisikoa, erregistratutako irudien kontraste-tratamendua eta argazki bakoitzaren inbentario zorrotza egingo ditugu, haien kontserbazio-egoera, kopia-kopurua eta abar aztertuz.

Erregistratu ostean, irudiak indexatuko ditugu bakoitzari dagokion testu-fitxan.

EHUko Arte Ederren, Humanitate eta Kazetaritza fakultateetako ikasleek parte hartuko dute katalogazio horretan, Leioako campusekoek zein Gasteizko campusekoek.

DEIA egunkariak dohaintzan emandako negatiboen inbentarioa egitea

2024an, DEIA egunkariaren jabe den Iparragirre argitaletxearen dohaintza bat jaso dugu, 50.000tik gora negatibo dakartzana, batez ere, 1977 eta 2001 urteen artean Bizkaiko lurralde historikoan hartutako irudiak jasotzen dituenak.

2025ean, berriz, negatiboen erroilu bakoitzaren azaleko inbentarioa egin genuen. Lan horri esker, datuak, gaiak eta egileak berri izan genuen.

EHUko Arte Ederren, Humanitate eta Kazetaritza fakultateetako ikasleek parte hartuko dute katalogazio horretan, Leioako campusekoek zein Gasteizko campusekoek.

Nor gara gu? erakusketa iraunkorra

2025ean, pieza berriak txertatuko ditugu erakusketan, eta aldi baterako erakusketak jarriko ditugu, besteak beste: Agirre Lehendakariaren bulegoa Parisen, urriaren 7an, lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eraketaren 90. urteurrena ospatzeko.

Urtearen barruan aldi baterako erakusketa berriak jarriko ditugu, horien artean, «Lauaxeta. Ametsen egilea», Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetzan antolatuta, «Gabriel Aresti 50 urte ba(GA)rik», Euskaltzaindiak paratuta, eta «Berriro inoiz ez. Gerrako irudiak».

Ikastetxeetan, «Gure historiaren bila» tailer/karpeta didaktikoa zabalduko dugu. «Nor gara gu?» erakusketan jorratzen diren hainbat pieza eta gertakari historiko modu dibertigarrian ezagutzeko balio du ekimenak.

Erakusketaren bisita gidatuak egiteko aukera ere eskainiko dugu, bisitatzera datozen pertsonen beharretara egokituta eta, beharrezkoa balitz, edukiak eta ibilbidea egokituko ditugu.

Bestalde, 2024an zabaldu genuen Bitxiak gunea lantzen jarraituko dugu. Bertan, hilabeteko epean, museoaren bildumako piezak edo beste erakunde gonbidatu batzuetako pieza esanguratsuak erakutsiko ditugu.

Hala, 2025ean, honako pieza hauek ditugu programatuta:

Urtarrila II 13

64 urte igaro dira Javier Ciga joan zitzaigunetik. Marlari horren lan bat erakutsiko dugu.

Otsaila

Dohaintza pribatu bat.

Martxoa II 22

Agirre lehendakariaren heriotzaren 66. urteurrena Parisen. Jose Antonio Agirrek erabilitako fraka, Agirrerren familiak dohaintzan emana. Agirre Lehendakariaren jaraunsleak.

Apirila II 17

Gasteizen klandestinitatean ospatu zen hirugarren Aberri Egunaren 60. urteurrena. Hamar edo hamabost mila pertsona bildu ziren Arabako hiriburuan, euskal prentsa abertzalearen arabera.

Maiatza || 06

Nestor Basterretxearen jaiotzaren 102. urteurrena. Nestor Basterretxeak eta Jorge Oteizak Sabin Etxea sortzeko egindako maketa

Ekaina || 28 [1951]

Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau etorbidean zeukan eraikina konfiskatu eta agintari frankistei eman zioteneko 75. urteurrena. Frankistek enbaxada moduan erabili zuten. Orduko pieza/argazki batzuk.

Uztaila || 17 [1936]

Altzamendu militarren hasieraren 90. urteurrena. Metrailadorea.

Abuztua || 17 [1936]

Ramon de la Sota Llanoren heriotzaren 90. urteurrena. Ramon de la Sotaren irudiak.

Iraila || 23 [1956]

Parisen egin zen I. Euskal Mundu Biltzarraren 70. urteurrena. Biltzar hartako domina.

Urria || 17

Gudari Egunaren 61. urteurrena. Egia kapitainaren jantzia.

Azaroa || 13 [1886]

Deustuko Unibertsitatearen sorreraren 140. urteurrena. Irudiren bat edo elementuren bat DUrekin lankidetzan.

Abendua || 21 [1946]

Radio Euzkadiren lehen emisioen 7. urteurrena. Irratiaren piezak.

Aldi baterako erakusketak

2025ean, geuk sortutako aldi baterako hainbat erakusketa egingo ditugu.

Lauaxeta. Ametsen egilea. Laukizko poetarengana hurreratzeko erakusketa da. Hamar paneletan, olerkariaren bizitza azalduko dugu. Erakusketan adierazten diren kontzeptuen arteko zubiak ametsak dira, hain zuzen ere, poetak bizitzan zehar izan zituenak: poesiaren ideala, kazetaritzan jarduteko joera, kultura berritzeko nahia edo gizartea eraldatzeko ahalegina. Eta kontakizun horren bidez, Lauaxetaren biografia ezagutzera eman eta beraren harreman sarea deskribatuko dugu, bai bere bizitza pertsonal eta politikoari doakionez, bai Euzko Gaztediren barruan eta Emakume Abertzale Batzako kideekin izan zituen harremani doakionez.

Hamar panelek osatzen dute erakusketa, elementu mugikorak direla, eta Bizkaiko bost herritan egongo da ikusgai. Erakusketa labur eta azkarra da, Lauaxetaren bizitza eta lanak laburbiltzen dituena. Garai hartako olerkariak poesia aldatu nahi zuten, eta haren bidez, mundu osoa. Horregatik, laukiztarraren ametsen ibilbidea egitearen garrantzia.

Zer erakusten da?

Dokumentuen argazkiak eta irudiak. Dokumentu argitaragabe batzuk ere erakusten saiatu gara. Lauaxetaren argazki argitaragabeak ikus daitezke, nahiz eta garai hartako materiala oso ugaria ez izan.

Dokumentu horien artean, bereziki aipatu behar ditugu mitinetako kartelak, *Arrats Beran* liburuaren jatorrizkoa, 1938ko otsailean, euskal idazleen kolektiboak *Euzkadi* egunkariaren Bartzelonako egoitzan egin zion omenaldia, kartzelan sartzeko orria eta ondoko epaiketako zenbait testu eta dokumentu, besteak beste, heriotza-zigorra ezartzeko erabili zuten testua.

Gabriel Aresti 50 urte ba(GA)rik. Euskaltzaindiak Gabriel Aresti idazle bilbotarraren omenez sortu duen erakusketa da. Bertan, Gabriel Arestiren alderdi autobiografiko ezezagunenak erakusten dira, eta, horiekin batera, haren lanen lagin deigarri bezain interesgarriak: itzulpenak, antzezlan baten deskribapena, Bilbori eta haren emazteari emandako poema ederrak...

Erakusketa horren bidez, Gabriel Aresti bera eta bere lanak ezagutarazi nahi dira, eta, bide batez, Arestiren ekarpenari balioa eman, hau da, bere lanaren meritua aitortu, balioetsi eta ezagutarazi, Arestik euskal literatura modernizatzeko egin zuen ahalegina gogoratuz eta euskararen batasunaren hastapenetan izan zuen eragina eta ikuspegi zorrotza nabarmenduz. Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren, EITBren eta BBK Fundazioaren babesa du erakusketa.

Berrito inoiz ez. Gerrako irudiak. 90 urte igaro dira 1936ko uztailaren 18 hartatik, hau da matxinada militarren berri zabaldu zenetik. Une hartan, gure inguruko jende askok ez zion gerora izan zuen garrantzirik eman albisteari.

Inork ezin zuen imajinatu albiste hura 40 urte iraun zuen amesgaizto bihurtuko zenik, gure herriarentzat horren ondorio lazgarriak izan zituelarik: heriotzak, erbestea, espetxeratzeak, fusilamenduak...

Berrito inoiz ez. Gerrako irudiak 1936-1939 erakusketa hurbila eta bizia da, urte erabakigarri haietan gertatu zenaren erakusgarri, eta orduko gertaerek harrapatu zituzten gizon eta emakumeek sentitu zutenaren erakusgarri.

Batik bat, erakusketa plurala da, epaitu nahi ez duena; alde batean zein bestean gertatu zena aurkeztu, besterik ez du egin nahi.

Aldi baterako erakusketak

2026an, geuk sortutako aldi baterako hainbat erakusketa egingo ditugu.

- [1] *Kirolariak*. Gure kirolari paraolimpikoei eskainitako erakusketa da, euskal kirolariei eta haien jatorrizko taldeei ikusgarritasun handiagoa emateko.

Gure kirolariak «Basque Team» markak babestuta joan dira olinpiadetara. Marka hori Parisen lehiatzeko sailkatu diren goi-mailako euskal kirolariek soilik osatzen dute.

Kirolarion ahalegina eta dedikazioa dira erakusketa honen muina, eta bertan jasotzen dira horien iritziak lehiatu aurretik eta ondotik.

Gure ustez, garrantzitsua da kirolari paralinpikoen aurpegia agerian jartzea; izan ere, herritarrek ez dituzte kirolari paralinpikoen lorpenei kasu egiten olinpikoei irabazitakoei moduan, eta, horregatik, gure kirolari paraolimpikoak ezagutzea eta haien ahalegina zein dedikazioa aitortzea nahi dugu.

Erakusketarekin batera, euskarazko eta gaztelaniazko argitalpen txiki bat egingo dugu, haien historia eta lorpenak jasota gera daitezen.

- [2] «*Emakumeak Aberria Eginez. EAB 100 urte*». Elkartearen mendeurrena ospatzeko erakusketa da. Komisarioak: Karmele Perez Urza, Begoña Bilbao Bilbao eta Gurutze Ezkurdia Arteaga, UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak (Garaian ikerketa-taldeko kideak).

Emakume abertzale haiek egindakoak erakusten du laginak, Aberriaren alde egindako ekintzak eta esperientziak jasota. Emakume horiek gizarte-eredu berri baten aldeko apustua egin zuten, hainbat ekimen eta lan bultzatuz.

Hasieratik bertatik, EABk erakutsi zuen emakumeen erantzukizunen artean bazirela aberriaren aldeko zabalkundea egitea, eta hezkuntza-, elkartasun-zerbitzuak zein gizarte-laguntza eskaintzea. Ongintzan oinarrituta, euskararen alde engaiatu ziren umeentzako euskal eskoletan eta emakumeen prestakuntzan.

Hala, mugimendu feminista horrek euskal emakume abertzaleak ahaldundu zituen, eta eragin handia izan zuen emakumeen ondoko belaunaldietan eta abertzaletasunean.

Erakusketa 12 modulutan banatuta dago, eta sei gaikako bloke handi jorratzen dituzte.

Bloke horietan elkarteak bere ibilbide osoan egindako lana eta pentsamendua jasotzen dira: 1) EABren hasierak 2) EABren loraldia; 3) «Jaungoikoa eta Lagi Zarra» (JEL) doktrina; 4) EAB eta hezkuntza; 5) EAB eta gizarte-laguntza eta 6) EAB gerran eta erbestean.

- [3] «*Mendirik Mendi. EMB 100 urte*». Sortu zenetik 100 urte bete dituen Mendigoizaleen elkarteari eskainia.

8 panelek osatzen dute, eta honako izenburu hauek dituzte: 1. Mendigoizaleak, beren herria maite duten mendizaleak; 2. Askatasunaren eguzkia basotik irteten da; 3. Gazteak martxan; 4. Itxaropen garaiak; 5. Tragediaren preludea; 6.

Mendigoizaleak bakean, gudariak gerran.; 7. Gudarien batailoiak: 8. Klandestinitatea eta askatasuna.

Erakusketa honekin batera, talde honen historia eta ibilbidea jasotzen duten beira-arakak daude. Euskadiko lurralde osoan zehar ibiliko gara, eta jasotako dohaintzetatik iritsitako mendigoizaleen irudi ezezagunak ikusi ahal izango dira, oraindik argirik ikusi ez dutenak.

- [4] Aldi baterako beste erakusketa ibiltari bat ere eskainiko dugu: «Alava sarea. Emakume ikusezinak, elkartasuna, espioitza 1936-1937».

Josu Chueca historialari eta UPV/EHUko irakasleak komisariatu du erakusketa, eta emakumeek frankismoaren aurkako erresistentziaren subjektu aktibo gisa eta aliatuen kausari laguntzeko subjektu aktibo gisa duten zeregina nabarmendu nahi du.

Alava Sarea zabala izan zen eta batez ere emakumeek osatu zuten, Erresistentziaren eta faxismoaren aurkako borrokaren subjektu aktibo gisa. Gerra Zibilean, Gerraostean eta Bigarren Mundu Gerran Aliatuen alde funtsezko papera jokatu zuten emakume ikusezinak. Ehunka eta milaka bizitza salbatu eta faxismoaren aurkako borrokan Aliatuei oso informazio baliotsua eman zieten emakume espioi haiek.

Luis Alava izan zen talde horren arduraduna, idazkaria, koordinatzailea, baina ez taldeko bat baino askoz gehiago, eta garai hartako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkartza-talde handi baten zuzendaritzapean egindako ekintza antifrankista bere bizitzarekin ordaindu zuen turkiar burua izan zen.

Lau emakumek antolatu zuten euskal presoekiko elkartasun eta Aliatuen aldeko espioitza sare klandestino hori Bigarren Mundu Gerran; Frankismoaren diktadurarekiko indarkeriarik gabeko erresistentzia bat osatu zuten, emakume 'ikusezinak' protagonista zituena: Tere Verdes, Bittori Etxeberria, Itizar Mujika eta Delia Lauroba.

Erakunde klandestino bateko kideak ziren, eta indarkeriarik gabeko erresistentzia-ekintza ugari egin zituzten Euskal Herriaren askatasunak eta eskubideak berreskuratzeko. Baina armada alemaniarra Parisen sartu zenean, 1940ko ekainaren 14an, Eusko Jaurlaritzak erbestean zuen Parisko ordezkartza okupatu zuen, eta harekin batera, Sarea erori zen.

🕒 Ihes-aretoa

Museoak bi *escape room* edo ihes-areto kudeatzen ditu, jolasten ikasteko era atsegina delakoan.

Bi aretoak gertakari historikoetan oinarrituta daude, eta museoaren bildumako objektuak ikus daitezke bertan.

- [1] **Ikurrina operazioa.** Ihes-areto honen helburua hezkuntza-eskaintza hau osatzea da, 15 eta 25 urte bitarteko adin tartekoentzat jarduera ludiko-didaktikoa eskainiz, hau da, orain arte programazio zehatzik ez duen erabiltzaileentzako eskaintza.

Jarduera honetan, gamifikazioa erabiltzen dugu euskal abertzaletasunaren historiaren ikaskuntza eta ezagutza sustatzeko estrategia gisa. Gamifikazioa, jolasetan oinarritutako ikaskuntzaren oinarri gisa, metodologia berritzailea da, eta publiko orori eskaintzen dio esperientzia didaktiko eta motibatzailea izateko aukera, euskal gizartearen eta kulturaren ezagutzaren hedapenean aplikatu daitekeena.

«Ikurrina operazioa» deritzon ihes-aretoan gaintitu behar diren proben gaia Museoko «Nor gara gu?» erakusketatik ateratako esparru historikoen esparruan girotuta dago:

Gerra Zibila

Erregimen frankistaren errepresioa, jazarpena eta espainola ez zen zeinahi nazionalismo erakusteko debekua.

Erbestealdia eta klandestinitatea

«Eresoinka» taldearen eta euskal diasporaren sorreraren bidez, balio kulturalak (hizkuntza, ikurrak eta abar) zabaltzen jarraitzeko erabili ziren tresnak.

- [2] **Alava sarea operazioa.** Ihes-areto honen helburua hezkuntza-eskaintza hau osatzea da, 15 eta 25 urte bitarteko adin tartekoentzat jarduera ludiko-didaktikoa eskainiz, hau da, orain arte programazio zehatzik ez duen erabiltzaileentzako eskaintza.

Jarduera honetan, gamifikazioa erabiltzen dugu euskal abertzaletasunaren historiaren ikaskuntza eta ezagutza sustatzeko estrategia gisa. Gamifikazioa, jolasetan oinarritutako ikaskuntzaren oinarri gisa, metodologia berritzailea da, eta publiko orori eskaintzen dio esperientzia didaktiko eta motibatzailea izateko aukera, euskal gizartearen eta kulturaren ezagutzaren hedapenean aplikatu daitekeena.

«Alava sarea operazioa» deritzon ihes-aretoan gaintitu behar diren proben gaia Museoko «Nor gara gu?» erakusketatik ateratako esparru historikoen esparruan girotuta dago

EAB / Aberri Eguna 1932

Emakumeen lehen mugimenduak, emakumeen elkarteak eta euren jarduera kultural, sozial eta politikoa.

Euzko Gaztedi / Mendigoizaleak

Kulturaren aldeko ekinbidea euskara erabiliz zabaltzen dituzten gazte-taldeak.

Parte-hartzea beste erakunde batzuen erakusketetan

Aurreko urteetan bezala, Museoak bildumaren zati bat maileguan uzten die erakundeei, eurek antolatzen dituzten erakusketetan erabiltzeko.

2026an, erakusketa hauetan parte hartuko dugu:

- ❑ **Euskal Poliziaren Museoaren** erakusketa iraunkorra. Museoak utzitako objektuak daude ikusgai erakusketa horretan
- ❑ **Gernikako Bakearen Museoa Fundazioaren** erakusketa iraunkorra. Museoaren funtsetako batzuk erakusten dira bertan.
- ❑ **Eusko Legebiltzarra.** Erakusketa txiki bat dago areto batean eta, bertan, gure funtsen zati bat ere ikustea izango da.
- ❑ **Museo de l'exili,** Jonquera herrian.

Hitzaldiak eta dokumentalak

Ondoko gaiei buruzko hitzaldiak eta ikus-entzunezkoen emanaldiak antolatuko ditugu:

- ❑ **Espedizioak,** Naturaguneetan egindako dokumentalak, film laburrak... ezagutarazteko gunea. Aurten, baleazaleen lana eta euskal ekonomian utzi zuten arrasto sakona jorratuko ditugu.
- ❑ **AMA LURRA.** Gureaz hausnartzeko eta gurea zaintzeko espazio berria.

Museoan Ama Lurraren ateak zabalduko ditugu, gure inguruarekin hitz egiteko espazio bizia.

Gure lurra bakar egiten duen guztiari buruz hausnartzeko, eztabaidatzeko, partekatzeko eta ikasteko lekua da: haren aberastasun naturala, aniztasuna, memoria eta hura zaintzeko behar dugun konpromisoa.

Hemen ingurumenaz, kontserbazioaz, birziklapenez, jasangarritasunaz eta etorkizunaz hitz egingo dugu, baina baita gure ondare historikoa, nondik gatozen eta nola egin nahi dugun ulertzen laguntzen digun ondarea ezagutu eta babestearen garrantziaz ere.

Gure paisaiari eta historiari maitasunez begiratzea, zer eskaintzen diguten onartzea eta gaur egun nola zaindu ditzakegun aztertzea, ondoren datozenek guk oinordetzan jasotzen dugun lur eta ondare bera —edo are ederragoa— jaso dezaten.

Ama Lurra ekintza txikiak eta handiak sustatzeko sortu da, ahotsak batzeko, entzuteko eta gure ingurunearekin harremanetan jartzeko modu kontzienteagoa eraiki dezagun.

Gure lurra eta historia zaintzea geure burua zaintzea dela dioen espazioa da.

- **Liburuen txokoa.** Elena Moreno idazleak bere lanetako bat ekarriko du sail honetara: *La frontera lleva su nombre* («Ainaren» istorioa). Elenak lan hori sortzeko prozesua eta adin guztietako herritarren artean irakurketa eta idazketa nola bultzatu azalduko digu.
- **Itsasoa, berdintasun lurraldea.** Sail honetan, itsasoa gertatu diren gizon-emakumeen bizipenak ezagutaraziko dira.
- **Emakume apartak,** Begoña Aristegi eta Mariú Gámbara D'Erricoren eskutik, honako izenburu honen ildoan: *Aurrerantz: berrasmatu eta bizitzarekin biraka ibili*. Egileek bi emakumeren istorioa kontatuko digute, seme-alabak nagusi izanik, bizitza aldatzen zaienean, euren burua berrasmatzera eta aurrera jarraitzera behartuta daudelarik, sendotasun eta itxaropenez betetako bide berri bat eraikitzeko asmoz.
- **Guztientzako kirola,** Janire Gonzalez Etxabari, World Surfing Games jokoetako munduko txapelduna.
- **Museoko gauzakiaren bizitza.** Mintegi horretan, museoan funts eta jardueri loturik egunero egiten diren hainbat gai garatuko ditugu, hala nola prebentziozko kontserbazioa. Aurreko urteetan bezala, museoan egiten ditugun kontserbazio-lanei buruzko jardunaldi batzuk antolatuko ditugu unibertsitateko ikasleentzat.
- **Gazte ekintzaileak.** Sail honetan, ametsak bete dituzten gazteak ezagutarazi nahi ditugu.

Aurten, BIZIPOZ proiektua ezagutarazi nahi dugu. Gipuzkoako kooperatiba bat da, gazteek sortutakoa, eta adinekoen zahartze aktiboa, osasungarria eta parte-hartzailea sustatzeko programak diseinatu eta garatzen ditu.

TAILER DIDAKTIKOAK

2026an, eskaintza didaktikoa zabaltzeko asmoa dugu, adin-tarte guztientzako tailerrak eskainiz, unibertsitateko ikasleei, adinekoei eta guzti.

Beste alde batetik, begiz jo dugu historiari buruzko tailerrak egitea bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleentzat, gure eskaintza ikastetxeetako ikasketak eskariari erantzuteko helburuz.

Ildo horretan, sei multzotan bildutako hogeita hamarretik gora tailer antolatuko ditugu:



ETORKIZUNA ERAIKITZEN

CONSTRUYENDO EL FUTURO: IZAN GARELAKO IZANGO DIRA

- Historiako tailerrak: Aranzadi
- Bilbo eraikitzen
- Bilbo eraikitzen: Zazpikaleak
- Olatu birziklatuak



GABONETAN

- Pika Pika
- Erdu Eguberrira
- Nire bola... eko-txik



EUSKADI MUNDUAN

- Kanpo Ekintzarekin batera antolaturiko ekintzak: nazioarteko harremanak, migrazioak, erbestealdia...



ARTEA ZIENTZIA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA ARTE CIENCIA TEKNOLOGIA INNOVACIÓN

- Argazki-kamera
- Ganbera estenoipeikoa eta irudiak errebelatzea
- Tximistargazkia
- Itsasoa pixelatzen



GABONETAN

- Stop Motion
- Gabonetako tximistargazkia



IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURREN AMAMAREKIN ESCRIBIR SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

- Toti Martínez de Lezea idazlearen eskutik



MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO: MULTICULTURALIDAD

- Gure ikurrak: ikurrina
- Gure ikurrak: lauburua (serigrafia-tailerra)
- Taumatropoa

- Kolore hipekonektatuak
- Kolore hipekonektatuak. Suziriak
- Gure historiaren bila
- Baso-azpikoa (lauburua)



GABONETAN

- Hama Bits
- Gabonetako kolore hiperkonektatuak
- Arboglifoak
- Magia txikiaren fabrika



HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO. CONOCER PARA TRANSFORMAR

- Burdin Gerrikoaren Interpretazio Zentroa
- Arboglifoak
- Picassoren 'Guernica'
- Bilboko lauza
- Urarekin haziz
- Ura lagun
- Artea eta ura



GABONETAN

- Elur-panpinaren arboglifoa
- Olentzero eta Maridomingiren elur-bola
- Gabonetako bola-collagea
- Olgetan Olentzero eta Maridomingirekin

EGUNEKO ZENTROETARAKO TAILERRAK

Museoa guztiontzako gunea da; horregatik, tailer inklusiboak eskaintzen ditugu, gaitasun eta inguruabar anitzak dituzten pertsonentzat pentsatuak.

Tailer guztiak esperientzia aberasgarri eta parte-hartzaileak dira, elkarrekintza, memoria eta sormena sustatzen dituztenak.

Museoan uste dugu kultura, historia eta ezagutza pertsona guztien eskura egon behar direla.

Gure **helburua** da edozein pertsonak, gaixotasun, ezintasun, urritasun edo premia bereziren bat pairatzen ari den gorabehera, gure museoa bere museoa ere badela sentitzea. Gune hau leku atsegina, irekia eta guztiontzat aberasgarria izatea nahi dugu, lagunartean partekatzeke, ikasteko eta gozatzeko topagunea.

Istoria modu dibertigarri, atsegin eta talde bakoitzaren beharretara eta gaitasunetara egokitzeko pentsatutako tailerren proposamena da honakoa. Izan ere, ikastea ez da soilik ezaupide berriak eskuratzea, esperientziak bizitzea ere bada, kalitatezko uneak partekatzea eta gauza komun baten parte sentitzea.

Tailer bakoitza amaitzean, guztiok oroitzapen ona baino zerbait gehiago izatea da gure gogo: ikaskuntza berria, irribarre partekatua, euren eguna aberastuko duen bizipena eta gure ondarearekiko eta besteekiko lotura indartuko duena.

AISIALDIKO TAILERRAK

Gure aisialdiko tailerrak lagunartean gozatzeko diseinatuta daude, parte-hartzaileen adin eta lehentasunetara egokituta.

Helburua da momentu sortzaile, lasai eta aberasgarria partekatzea familian edo lagunekin. Era askotako tailerrak, zailtasun-maila desberdinetakoak, parte-hartzaile bakoitzaren beharretara eta gaitasunetara egokituak. Pertsona guztiek jardueraz norberaren erritmoan gozatu ahal izatea nahi dugu, beren adina edo aurretiko esperientzia edozein dela ere.

GABONETAKO TAILERRAK

Gabonetako sasoia urteko garai berezi eta maitagarrietakoa da, elkartzeko, partekatzeke eta denboran iraungo duten oroitzapenak sortzeko unea. Horregatik, 2026an modu paregabean ospatu nahi dugu, historia eta tradizioak hurbilduz, data horiek ilusioz eta esanahiz betetzeko diseinatutako tailer batzuk baliatuz.

Gabonetako tailerren programazioa prestatu dugu, gure historiaren, sustraien eta nortasunaren zati bat jaso eta transmititzeko. Horietako bakoitza egiten duten pertsonak sormenezko jarduera dibertigarri batez gozatzeaz gain, gure kulturaren zati txiki bat etxera eramateko pentsatuta dago, beren etxeetan Gabonetako dekorazioaren eta espirituaren parte izan daitekeena. Tailer horietan sortzen dena objektu bat ez eze, une partekatu baten oroitzapen maitagarria ere izatea nahi dugu.

Ohituraz, Gabonetako tailer hauek ikastetxeetako ikasleentzat antolatu ohi ditugu, txikienei gure ohiturak eta balioak eskuzko eta hezkuntzako jardueren bidez irakasteko helburuz. Dena dela, aurten gure ateak zabaldu nahi dizkiogu komunitate osoari, esperientzia atsegin hau pertsona gehiagok bizitzea izan dezaten gurekin.

Gure aburuz, Gabonak are politagoak dira partekatzen direnean, hainbat belaunaldi elkartzen direnean elkarrekin sortzeko eta ikasteko, talde-lanak eta irribarreek aretoa giro bero eta alaiz betetzen dutenean.

ELKARTE ETA ADINEKOENTZAKO TAILERRAK

Museoan kultura, sormena eta ikaskuntza pertsona guztientzako esperientzia irisgarriak izatea nahi dugu, bizitzako edozein garaitan. Horregatik, bereziki elkarte eta adineko pertsonentzako tailer hautatuen aukeraketa egin dugu, haien interes eta beharretan pentsatuz.

MASTERCLASS EDO MAISUTZA ESKOLAK

Bost urte daramatzagu eskola praktiko horiek egiten, ikasleei beharrezko tresnak eskaintzeko, laneratzeko bidean hainbat espezializazio-eremu ezagut ditzaten.

Masterclass horien bidez, ikasleek eta arloan interesa dutenek museoan lantzen ditugun materialekin bertatik bertara lan egiteko aukera izan dezaten nahi dugu, eta bilgarri bat egitean edo ehunezko piezaren bat maiatzean sortzen zaizkigun arazoak nola konpondu ikus dezaten.

Jarduera hau EHUko Arte Ederren Fakultatearen laguntzaz antolatzen dugu.

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOAREN ZABALKUNDEA

Une honetan bi bitarteko ditugu Museoak sortzen duen eduki guztia zabaltzeko: webgunea eta sare sozialak.

Webguneak, museoaren erakusketak bezala, hiru urte ditu. Horregatik, denbora honetan beharrezkotzat jo ditugun komunikazio-beharretara egokitu gara, eta uste dugu etorkizun hurbilean *podcast* kanal baten bidez handitu ahal izango direla, edo irudi edo bideo gehiago gehitu ahal izango direla gaur egungo atal guztietan.

Zalantzarik gabe, hazten joan beharko du, gure bilduma oso mardula baita eta museoaren eta gizartearen arteko lotura.

Era berean, gure argazki-funtsaren zati bat txertatu dugu Eusko Jaurlaritzaren webgunean.

Sortzen den informazio guztia sare sozialen bidez ere hedatzen dugu: Instagram, Facebook, X, Tiktok edo Youtube.

Gure eduki guztiak egunero-egunero gaurkotzen ditugu sare horietan.

Bestalde, museoari eta bertan antolatzen diren jardueri buruzko informazioa bidaltzen dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, EHUren, Museotik, Kulturklik eta beste plataforma batzuen webguneetara.



SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

Fundazioak ematen dituen sariak Sabino Aranaren jaiotegunaren oroitzapenez sortu ziren. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria buru dela, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXXVII. edizioa urtarrilaren 25ean egingo da, Bilboko Arriaga antzokian.

Dagoeneko 209 pertsona, elkarte eta erakundek jaso dute saria azken 36 edizioetan, gizartearentzako zerbitzu eta gogozko lana egitegatik. Izan ere, elkarrizketa, ahalegina, elkartasuna eta beste balio batzuk izan dira nagusi Sabino Arana Fundazioak antolatzen duen urteroko hitzordu honetan



BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioaren izaera pluralak aukera emango digu beste erakunde eta erakunde batzuetako ordezkarietara (Euskaltzaindia, Gogora, udalak, Helduak Elkartea, ikastetxeak, etab.) lankidetzari eusteko, SAFek zuzenean antolatzen ez dituen jardueretan.

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, streaming bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Kolaborazioak Onda Vasca irratian astean behin.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

12

JARDUEREN HARTZAILEAK

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak..

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsetan duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Eta hori betetzeko ahaleginak egiten ditugu barruko erabaki-organoetan –Patronatua eta abar–, gonbidatuetan eta parte-hartzaileetan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delako eta, bestetik, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztietako hizkuntza ofiziala delako.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onarturiko Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (orain, AROAk) hauxe dio: «ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera indartzea izango da». Ondorioz, egitasmo honek ESEPe planteatzen duen helburu nagusiarekin bat dator, bai eta helburua lortzeko planteatzen dituen zehar lerroekin ere, hala nola: «Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragiteak berebiziko garrantzia du, jakina, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko

oinarrizko azalpenak gizarteratzea, hizkuntza ezagutzetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko lantegiak antolatzea, lidergoa lantzea hizkuntzen normalizazioaren alorrean, eta abar. Sentsibilizazioak eta komunikazioak pisu nabarmena dute, beraz, esparru honetan».